

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko uztailaren 29an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-06-24 ETA 2025-07-09KO UDAL BILKURETAKO AKTEN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2025-06-24ko eta 2025-07-09ko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Jon Arregui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 23an, 39/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Baimena ematea Jon Arregui Guruceaga jaunari Betelun 6 behor asto bururentzako abeltzaintza-ustiapen estentsiboko jarduera kaltegabea jartzeko.

2.- Festetako postuak

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 24an, 40/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko San Pedro festak direla eta, Miguel Fernandez Eduardori eta Sara Santos de los Santosi lurzoru publikoa okupatzeko baimena ematea.

3. Sorgintxo Hau eskolaren ordutegia eta egutegia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 27an, 41/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025-2026. Kurtzorako Sorgintxo Haur Eskola Haur hezkuntzako lehenengo zikloko zentroko ordutegia eta egutegiaren proposamen berria onartzea.

4. Mikel Lopez Larralde

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 30ean, 42/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mikel Lopez Larralde 2. Poligonoko 389 lurzati nagusitik bi lurzati berri banatzeko eskaera ez onartzea.

5. Adelaida Sotil Gorriti

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko ekainaren 30ean, 43/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Adelaida Sotil Gorritiri hirigintza lizentzia ematea Sotil enean etxebizitza barneko obrak egiteko.

6. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 3an, 44/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko ekainaren 24an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

7. Pedro Jose eta Angel Rekalde

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 4an, 45/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Pedro Jose Rekalde Goldarazi Irigoien auzoko 3. Pisuko etxebizitzarako eta Angel Rekalde Goldarazi Irigoien auzoko 1. Pisuko etxebizitzarako ur-hornidurako hartunea egiteko baimena ematea

8. 1-227 lursailaren katastro aldaketa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 18an, 46/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 227. Lursaila aldatzeko Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak egindako eskaera ez onartzea, auzi zibil bat dagoela agerian jarri delako.

9. Claudia Rodes

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 18an, 47/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Claudia Rodesi Beteluko udaletxeko 2. Solairuko piano gela erabiltzeko baimena ematea.

3. ARAIZKO ETA LEITZAKO UDALEKIN HITZARMENA ONARTZEA

Beteluko Antigua kaleko 9 bis zenbakian dagoen Araxes HLHIP Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen ikastetxe publikoen sarean integratutako ikastetxea da, eskualdeko eskola-jantoki zerbitzua duena.

Betelu eta Araizko Udalek beren gain hartu dute eskolako jantoki-zerbitzuaren kudeaketa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin egindako lankidetzaz hitzarmenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretuaren 9.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2025eko ekainaren 24ko bilkuran udalbatzak Araxes Guraso Elkarteak eskolako jantoki zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartzeko hitzarmena onetsi zuen.

Hori dena martxan jartzeko eta kudeaketa bideratzeko Araizko eta Beteluko udalek hainbat ekinbide egin eta egingen dituzte elkarlanean. Kudeaketa horren oinarrietako bat hurbileko produktuak kontsumitzea izanen da.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez ondokoa ERABAKI DU:

Lehenengoa: Araxes HLHIPko jantokiaren kudeaketa martxan jartzeko eta kudeaketa horrekin lortu nahi diren helburuak lortzeko Araizko Udalarekin elkarlan hitzarmena onartzea.

Bigarrena: Hitzarmena sinatzeko Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea.

4.- TOKIKO ENTITATEEI NEKAZARITZAKO ELIKAGAIAK MERKATURATZEKO KANAL LABURRAK SUSTATZEKO EMANEN ZAIZKIEN LAGUNTZAN PARTE HARTZEKO AKORDIOA

Landa Garapeneko zuzendari nagusiak ekainaren 13ko 262E/2025 ebazpen bidez, tokiko entitateei nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko emanen zaizkien laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren.

Ikusita Araxes HLHIPko jantokiaren kudeaketan hurbileko produktuak txertatzeko helburu dutela Beteluko Udalak eta Araizko Udalak, udalbatzak aho batez ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Tokiko entitateei nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko emanen zaizkien laguntzen eskaera egitea.

BIGARRENA: Eskaera Araizko Udalarekin batera egitea Araxes HLHIPko jantokiaren kudeaketa martxan jartzeko eta kudeaketa horrekin lortu nahi diren helburuak lortzeko onartutako elkarlan hitzarmena dela eta.

5. 2024KO KONTUEN ESPEDIENTEAREN ONARPENA.

Udal Kontuen Batzordeak 2024ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udalaren Kontu Orokorrei buruz 2025eko ekainaren 24an egindako aldeko txostena ikusirik

Kontu orokorra Udaletxeako iragarki oholean iragarri ondotik 15 egun balioduneko epean, 2025ko ekainaren 25etik 2025eko uztailaren 17ra arte, jendaurrean egon dela kontuan harturik, interesatuek inolako alegazio edo kexarik aurkeztu gabe.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242.4 eta 242.5 artikuluekin bat, zera ERABAKI DA:

1. 2024ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udaleko Kontu Orokorra onartzea.
2. Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioako Departamentuari espedientearen kopia bidali.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

6. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Asunción Iriarte Balda

Asunción Iriarte Baldaren ibilgaluaren baja dela eta 2025. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa proportzionala eskatu du.

5906-CZH matrikula duen ibilgailua 2025eko ekainaren 25ean eman zen bajan

Hau ikusirik honakoa onartu da:

Urteko bi hiruhilekori dagokion zati proportzionala itzultzea, hau da 32,27 euro.

Hau dena Nafarroako Toki Ogasuneko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 163.3. artikuluari jarraiki.

2. – Feliciano Zubillaga

Feliciano Zubillaga Estangak San Pedro Kalea, 14,1 (Elizburua)ean dagoen etxebizitzako uraren hornidura etetea eskatu du eta beraz, urari buruzko tasarik ez bidaltzea.

Hau ikusirik honakoa onartu da:

LEHENENGOA: Eskaera onartzea eta beraz San Pedro kalea 14,1eko ur hornidura etetea.

BIGARRENA: 2025eko uztailaren 1etik aurrera etxebizitza horretako ur horniduragatik, ur zikinen estolderiagatik eta arazketagatik ezarritako tasarik ez bidaltzea.

7. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1.- Nafarroako babes zibileko batzordea

Udalbatzari jakinarazi zaio Nafarroako babes zibileko batzordeak 2025eko maiatzaren 28an egindako bilkuran Beteluko udalerriko baso suteen arriskuaren aurkako udal jarduketa plana homologatu zuela.

8. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Animsa	2T mantenua	1.565,27 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Ekaineko udalerako erosketak	38,25 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Ekaineko udalerako erosketak	94,45 €
Wikai	F. Ekaina	112,10 €
Iberdrola	F. Urberoako ekaineko kontsumoa	7,21 €
Iberdrola	F. Udaleko pisuko kontsumoa	10,15 €
Iñaki Eraso Ochotorena	F. 63	14.758,98 €
Ofico	F. 252476	151,15 €
Araxes ikas komunitatea	F. Eskolako aterpeko garraio	348 €
Venus Campos Walsh	D. DFA 44	2.833,41 €
Orona	F. 2504242000	413,03 €
Gizarte Zerbitzuak	F. 2025 aurrekontuaren %50	6.555,48 €
Repsol	F. gasoila	83 €
Angelines Carrillo Ruiz	F, uraren ekaineko kontrola	90 €
Iberdrola	F. festetako argi koadroaren alta	278,88 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	223,49 €
Iberdrola	F. Festetako koadroaren kontsumoa	425,11 €
Codisna	F. Kloroa	199,65 €
IDM Life Saving	F. Ekaina	131,07 €
Aralar udal musika Eskola	F. Aurrekontuaren %25	3.124,04 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	564,34 €
Goienar	F. Udaletxeko ekaineko argia	331,79 €
Goienar	F. Eskolako ekaineko argia	535,43 €
Beteluko jai batzordea	F. Festetako afariko edariak	393,16 €
Maite harategia	F. A1/285	116,79 €
Serlimpia	F. 250331	225,06 €
WC Loc sl	F. 611012713	1.735,14 €
Correos	F. uraren kontadoreen paperak buzoneatu	19,80 €
Carpasol	F. 2876	1.606,50 €
Pavimentos Arquiservi	F. 4391	149,63 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1091 ekaineko mugikortasuna	126 €

Iruña Mantenimientos	F. 25.5227	1.450,40 €
Amador Autor	F. 15/2025	1.590 €
Amador Autor	F. 16/2026	689 €
Animsa	F. HWA 45	319,74 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 66	269,83 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 67	344,67 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 68	2763,70 €
Nafarkoop	F. 159	3.502,95 €
Miguel Ramon Olano	F. 43/2025	129,47 €
Miguel Ramon Olano	F. 44/2025	231,11 €
Miguel Ramon Olano	F. 45/2025	566,28 €
Miguel Ramon Olano	F. 46/2025	692,12 €
Miguel Ramon Olano	F. 47/2025	94,38 €
Miguel Ramon Olano	F. 48/2025	94,38 €
Leroy Merlin	F. Udaleko argiteri publikoa	100,81 €
Ofico	F. F252898	203,82 €
Vodafone	F. uztaila	212,04 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide Aholkularitza	F. S0001168	255,31 €
Comercial Fervis	F. 1918	28,31 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Ekaineko janaria	81,05 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F, Ekaineko garbiketa	33,10 €
Comercial Fervis	F. 1746	131,79 €
Maite harategia	F. A1/294	773,50 €
Kide	F.S1415	588,06 €
DENETARA:		52.392,18 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko hamarrak eta laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.